MILAKA UME MUTURREKO POBREZIA ETA
GOSETIK ALDENTZEKO BORROKATZEN ARI DIRA

BATU ZAITEZ ALDAKETARAKO



GH kanpaina 2018-2019
HAUR HEZKUNTZA—PROIEKTUA


GAIA: Haur Hezkuntzako proiektua

GIH-EI BURUZKO PROIEKTUA
HAUR HEZKUNTZA

BIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA



Emakumeen dantza Boli Kostan. Iturria: SEDen artxiboa



IRAKASLEAREN FITXA

GAIA:GIHei buruzko proiektua, Haur Hezkuntza

UNITATEAREN IZENBURUA: bizimodu duina izateko eskubidea

DENBORALIZAZIOA

A SAIOA (45 - 60 minutu)	B SAIOA (45 - 60 minutu)
1. jarduera 2. jarduera	3. jarduera 4. jarduera

1- SARRERA

Unitate honetan, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) oso modu xumean landuko ditugu, bereziki 1. GIHa (Pobrezia desagerraraztea) eta 2. GIHa (Goserik ez izatea). GIHak erakunde publikoek eta pribatuek nahiz mundu osoko pertsonek garatu beharreko programa gisa planteatu dira.

2- HELBURU DIDAKTIKOAK

Pertsonen osasuna eta planetaren osasuna gure ardura merezi duten alderdietako batzuk direla identifikatzea.

3- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA IKASTEKO ESTANDARRAK


GIHen hiztegi berezia ezagutzen eta erabiltzen du

Adinaren arabera egokitutako GIHei buruzko informazioak ulertzen ditu

Haurren osasunak duen garrantzia aitortzen du

Natura zaintzeak duen garrantzia aitortzen du





4- EDUKIAK / ZEHAR-GAIAK

KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	JARRERAK
Osasuntsu egotea, gaixo egotea. Desnutrizioa. Planeta zaintzea.	GIHei buruzko aurretiazko ideiak planteatzea GIHei buruzko bideoak aztertzea Sintesi-jarduerak egitea (fitxak) Gaiak aurkeztea (taldeko fitxak aurkeztea, argazki laukiak). Psikomotrizitate xehea eta gorputz-adierazpena lantzeko jarduerak	Sentiberatasuna pertsonen eta planetaren arazoen aurrean. Taldeko arauak onartzea

5- JARDUERAK / OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Konpetentzia	Xehetasuna	Jarduerak
Hizkuntza-komunikazioa	Ikus-entzunezko hizkuntza ulertzea. Ahozko adierazpena.	1, 2
Matematika	-	-
Inguru fisikoa ezagutzea eta harekiko elkarreragina	Espazio irekiak erabiltzea motrizitateko jardueretarako (gorputz-adierazpena).	3
Digitala eta informazioaren trataera	Argazki digitalak tratatzea (gurasoen laguntzarekin).	4
Gizartea eta herritartasuna	Ikus-entzunezko hizkuntza erabiltzea beste errealitate batzuk ezagutzeko eta ulertzeko. Hizkuntzaren erabilera, munduan pobreziaren inguruan sentiberatzeko	1, 2
Kultura eta artea	Eskulanak egitea (zeta-paperean egindako marrazkiak eta argazki laukiak).	1, 4
Ikasten ikastea	Laburpen-lanak egitea.	1, 4
Norberaren autonomia eta ekimena	Taldeko jardueretan inplikatzea (ekimena, parte-hartzea). Elkarrizketa, jarduera arautzeko baliabide moduan.	1


6- PRINTZIPIO METODOLOGIKOAK

Intuizioan eta galderetan oinarritutako metodoa, egoera ezagunetatik abiatuta beste herrialde batzuetako pobrezia-errealitateetara (gaixotasunak) edo errealitate globaletara (klima-aldaketa) hurbiltzeko.

Metodologia aktiboa da; ikasleek etengabe aldatuko dute egiten ari diren jarduera: eskulanak egingo dituzte, bideoak ikusiko dituzte, musikaren erritmora egingo dute dantza edo beren ondorioak aterako dituzte.

Talde handian (batzarra) eta txikian (lankidetza) egingo dituzte jarduerak.





7- ANIZTASUNAREKIKO ARRETA

Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonekiko arreta, pertsona bakoitzak komunikatzeko egiten dituen ahaleginak bultzatuz eta irudien fitxetan oinarrituz.

8- ESPAZIOAK ETA BALIABIDEAK

Jarduera gehienak ikasgelan egiteko pentsatuta daude, eta horietako batzuk egiteko hainbat egun behar ditzakegu (hainbat tartetan).
3. jarduera espazio handi eta irekietan egitea komeni da.
Ikus-entzunezko baliabideak Interneteko orrialdeetako loturen bitartez daude eskuragarri.
Zenbait jardueraren fitxetan, beste egile batzuen baliabideak erabili dira, eta oinaldeko oharretan adierazi da horien iturria.


9- EBALUAZIO-PROZEDURAK

Etengabeko ebaluazioa, hasierako datuetatik abiatuta (aurretiazko ideiak), jardueretan egindako aurrerapenak eta unitatea amaitzean egindako lorpenak (ezagutza, lanak).

10- EBALUAZIO-TRESNAK

Behaketa zuzena
Ahozko parte-hartzea
Lan pertsonalen edo talde-lanen azterketa





1. jarduera. Haurren osasunari eta planetaren osasunari buruzko aurretiazko ideiak

Jarduera honek 1. eta 2. GIHekin lotutako gai nabarmen batzuei buruzko aurretiazko ideiak hautematea du xede. Alderdi metodologikoari dagokionez, ohiko jarduerak erabiltzen ditu psikomotrizitate xehea lantzeko.

Karta sorta bat erabiliko dugu, eta ikasgelan dauden ikasle adina karta hartuko ditugu; karta berdinen 4 talde osatuko ditugu, eta kartetako bakoitzak **1. fitxako** irudietako bat izango du.

1 fitxa erabil daiteke sorta egiteko eredu gisa.

Karta bat banatuko diogu ikasle bakoitzari. Karta berdinak dituzten guztiek talde bat osatuko dute. Talde bakoitzeko kide guztien artean, euren kartarekin lotutako ideiak esango dituzte (eredu-galderen erantzunen antzera).

Talde bakoitzari fitxa bat banatuko zaio, kartaren marrazkia handituta izango duena **(2.etik 5.era arteko fitxak)**. Fitxa margotuko dute, kolore askotako zeta-paperezko bolatxoak itsatsiz. Jarduera hau elkarlanean egingo dute:

- ikasle batek paper-zati txikiak moztuko ditu guraizeekin;
- bi ikaslek bolatxoak egingo dituzte;
- ikasle batek fitxan itsatsiko ditu paperezko bolatxoak
  (antzeko beste lan-sistema bat erabil daiteke)

Azkenik, erakusketa txiki bat egin daiteke talde bakoitzaren lanekin.



1. fitxa

	**HAUR BAT GAIXORIK** **Galderen ereduak**: Zer ikusten dugu? Gaixotzeko arrazoiak Zertan nabari zaio gaixo dagoela?
	**HAUR OSASUNTSUA** **Galderen ereduak**: Zer ikusten dugu? Osasuntsu egoteko arrazoiak Zertan nabari zaio osasuntsu dagoela?
	**PLANETA GAIXORIK** **Galderen ereduak**: Zer ikusten dugu? Gaixotzeko arrazoiak Zertan nabari zaio gaixo dagoela?
	**PLANETA OSASUNTSUA** **Galderen ereduak:** Zer ikusten dugu? Osasuntsu egoteko arrazoiak Zertan nabari zaio osasuntsu dagoela?

2. fitxa

Haurra gaixorik



Iturria: https://sp.depositphotos.com/13978877/stock-illustration-cartoon-sick-girl-with-tummy.html

Haurra osasuntsu



Iturria: https://elmundodedora.wordpress.com/area-1/

4. fitxa

Planeta gaixorik



Iturria: https://www.pinterest.es/pin/605874956094557099/

5. fitxa

Planeta osasuntsu



Iturria: http://imagenpng.com/planeta-tierra-dibujo/

2. jarduera. Goserik eta pobreziarik egon ez dadin

GIHak Haur Hezkuntzako haurrekin lantzeko, bi bideo animatu proposatzen ditugu, ikus-entzunezko ulermena eta ahozko adierazpena bultzatzeko.

Bi kasuetan, errutina erabil daiteke elkarrizketa sustatzeko: **Ikusi – Pentsatu – Galdetu**

1. bideoa: Gauza handia da laguntzea

(Iturria: SED)
https://www.youtube.com/watch?v=Q0ZW4VXUIgQ


1. bideoaren ulermena sustatzeko zenbait galdera:

Kontakizuna urrutiko herrialde batean garatzen da. Badakizu non?
Zer gertatzen zaie haurrei kontakizunaren erdian?
Nor jabetzen da? Oroitzen duzu bere izena?
Nola konpontzen da guztia?
Ondorioren bat atera dezakezu?

DESNUTRIZIOA

Desnutrizioak gizateriaren zati handi bati eragiten dio, urte gutxiko haurrei, bereziki. Elikadura faltagatik edo elikadura desegokia egiteagatik gertatzen da desnutrizioa, hartu beharreko bitaminak ez hartzeagatik eta nutrizioarekin lotutako beste zenbait faktorerengatik. Elikadura hobetuz saihets daiteke desnutrizioa. Munduan GOSERIK EZ IZATEA lortzeko, desnutrizioaren kontra borroka egin behar da.

Bideo honen edukia landu ondoren, "goizerdiko gosaria" bultza daiteke bereziki.



2. bideoa: GIH. Mundu hobeago baten sekretua 2

(Iturria: Solidaridad Don Bosco)
https://www.youtube.com/watch?v=nJ_6O-vjMn8

2. bideoaren ulermena sustatzeko zenbait galdera:

Zergatik esaten du kontakizunean mundu hau bikaina dela?

Nork zaintzen du planeta hau eta egiten du borroka klima-aldaketaren kontra?

Zer animalia irteten dira bideoan? Eta zer landare?


Nolakoa izan behar du urak?

Nola bizi behar dute izaki bizidunek elkarren ondoan?

PLANETA ZAINTZEA

Izaki bizidun guztiek bizitzeko behar dituzten gauzak hartu behar dituzte planetatik (ura, elikagaiak), baina, aldi berean, planetak gure etxea izaten jarrai dezan, natura zaindu behar dugu, ura garbi mantendu behar dugu, izaki bizidun guztien arteko elkarbizitza sustatu behar dugu. Horrela egiten ez dugunean, planeta gaixotu egiten da, klima aldatu egiten da, lehorteak eta uholdeak gertatzen dira, eta pertsonak eta izaki bizidunak hiltzen dira. Beraz, planeta zaintzea da pobrezia eta gosea desagertzeko egin dezakegun gauzetako bat.





3. jarduera. Gaizki sentitzen naiz, ondo sentitzen naiz.

Jarduera hau oso dinamikoa eta dibertigarria da haurrentzat. Toki irekietan (patioak) edo zabaletan (gimnasioak) egin daiteke. Mugimendua eta gorputz-adierazpena lantzea du helburu, eta aurreko hori osasun-egoerarekin lotzea.

Osasuntsu gaudenean, jolasteko, jauzi egiteko eta barre egiteko gogo handia izaten dugu. Baina, gaixorik gaudenean, ez dugu ezertarako gogorik izaten, eta triste egoten gara.


Aldarte horiek irudikatuko ditugu, irakasleak joko duen tresnaren baten erritmoari jarraituz (panderoa, txilibitua …):

Soinu indartsua eta erritmo bizikoa: asko mugituko gara, oso azkar eta aurpegi alaiarekin, osasuntsu gaudenean bezala.

Soinu ahula eta erritmo motelekoa: oso poliki eta gutxi mugituko gara, aurpegi tristearekin, gaixorik gaudenean bezala.

Bi mugimenduak txandakatu daitezke 5 minutuz. Ondoren, solasaldi labur bat egin dezakegu, gaixorik edo osasuntsu gaudenean nola sentitzen garen adierazteko.





4. jarduera. Nire argazki laukia: “GIHen aldeko ekintzak”

(Etxean prestatzeko jarduera)

Eskatu laguntza aitari edo amari zure aurpegiaren bi argazki inprimatzeko, **6. fitxako** txantiloiaren obaloen neurrikoak.

(Hemendik aurrera, hurrengo urratsak etxean edo ikasgelan egin daitezke)

Moztu kontu handiz argazkietako aurpegiak.

Moztu puntu gorrien lerrotik 6. fitxako txantiloia, eta itsatsi neurri bereko kartoi mehe batean.

Itsatsi aurpegi bakoitza fitxaren obaloen gainean.

Azkenik, tolestu kartoi mehea gidoi urdinen lerrotik, etxeko lanak egiteko zure mahaiaren gainean zutik jarri ahal izateko.



6. fitxa

